

DUTXA ZERBITZUA

Gizarte Zerbitzuen Departamenduan hainbatetan planteatu izan dira dutxa zerbitzu baterako eskaerak, bai departamendu barruan lanean ari garen kasuentzat, bai kasu puntualentzat, hala nola, ibiltariak.

Kasu hauetan eman izan den erantzuna arautu gabekoa izan da eta arautzearen premia antzematen da. Honela, Bergarako Udalak eskainiko duen dutxa zerbitzuaren irizpideak zehazten dira dokumentu honetan.

- ✓ Dutxa zerbitzua Agorrosingo kirolgunean eskainiko da.
- ✓ Dutxa zerbitzua erabiltzeko egutegi eta ordutegia honako hau izango da:
 - Ordutegia:
 - Negua: 10:00-12:00 eta 20:00-22:00
 - Udara: 9:00-10:00 eta 20:00-22:00
 - Egunak:
 - Astelehenetik - Ostiralera
- ✓ Dutxa zerbitzua honako pertsona hauei eskainiko zaie:
 - Ibiltariak: Gaur egun, urtean behin ogitarteko bat Mizpirualde egoitzan eta autobusez urrunen Donostia, Bilbo, Gasteiz edo Iruñera joateko txartel bat ematen zaien. Baldintza berdinetan, dutxa zerbitzua erabiltzeko aukera izango lukete.
 - Bergaran bizi diren pertsonak: Etxean garbiketa pertsonalerako baliabiderik ez duten kasuak.
- ✓ Bergaran bizi diren pertsonak dutxa zerbitzua erabiltzeko, Gizarte Zerbitzuek balorazio txosten bat egin beharko dute premia zuzitzeko. Txostenean, dutxa zerbitzuaren premia baloratuko da eta zerbitzua erabiltzeko maiztasuna eta iraungitze data zehaztuko dira. Dutxa zerbitzua zehazteko irizpide nagusia izango da etxean garbiketa pertsonala egiteko ez dutxa ez bainerarik ez edukitzea.
- ✓ Gizarte Zerbitzuek, bai ibiltarien kasuan bai herritarren kasuan, txartel bat prestatuko dute, erabiltzaileen identifikazio datuak eta zerbitzua erabiltzeko data eta maiztasunak zehaztuz. Dutxa zerbitzua erabili ahal izateko, erabiltzaileek txartel hau erakutsi beharko dute Agorrosingo kirolgunean. Ibiltariek bertan laga beharko dute.
- ✓ Bergarako Udaleko Gizarte Zerbitzuek bakarrik bideratutako kasuak erabili ahalko dute dutxa zerbitzua.
- ✓ Hilean behin, dutxa zerbitzuaren erabilerari buruzko informazioa emango da Osasuna, Enplegua eta Gizarte Arazoetarako Batzordean. Honetarako, Kirol Zerbitzuak, Dutxa Zerbitzuaren erabilerari buruzko hileko txostena aurkeztuko du.

Bergaran, 2007ko apirilaren 26an.